



# "GALTZEKO ARRISKU LARRIAN" KATALOGATURIKO LANDARE PSAMOFILOEN KULTIBORAKO PROTOKOLOEN GARAPENA

Leire Oreja<sup>1</sup> eta Maialen Arrieta<sup>1</sup>

<sup>1</sup>Botanika Saila. Aranzadi Zientzia Elkartea. Zorroagagaina 11. 20014 Donostia. [loreja@aranzadi.eus](mailto:loreja@aranzadi.eus)

## TESTU INGURUA:

Duna-sistemen ezabaketa eta eraldaketaren joera mundu mailako prozesua da eta euskal duna-sistemek atzerakada handia egin dute azken mendeetan. Euskal kostaldean itsaslabarrak dira nagusi eta duna-sistemak orohar itsasadarretan garatzen dira, non jatorri antropikoko presioak etengabeak diren, batez ere uda sasoiari.

**Proiektu-eskaintza** hau Kantauri kostaldeko duna-sistemen kontserbazio egoera hobetzeko hainbat neurri aurrera eramateko helburua duen **LIFE+ ARCOS LIFE Nature** proiektuaren baitan kokatzen da (ikus **LIFE+ ARCOS: Kantauriko itsasertzeko dunak zaintzen** posterra). LIFE + ARCOS proiektua 2014ko uztailean hasi zen eta 2018ko abenduan bukatzen da eta dagoeneko martxan daude posterrean eskaintzen diren lanak.

## HELBURUAK:

- **Espezie Mehatxatuen EAEko Zerrendan "Galtzeko Arriskuan Larrian"** dauden landare psamofiloak ezagutzea.
- **Germoplasma Bankuetan ex situ kontserbazioko prozesuan erabiltzen diren diren protokoloak eta laborategiko nahiz mintegiko probak ezagutzea eta ikastea.**

- Hazien bideragarritasun probak.
- Hazien hozitze protokoloa.
- Hazien ereinketa probak.
- Hazien ekoizpen protokoloaren garapena.
- ...



*Festuca vasconensis*



*Medicago marina*



*Alyssum loiseleurii subsp. loiseleurii*



*Galium arenarium*




*Euphorbia peplus*



*Ekoizpen protokoloa*



*Hazien lehorketa*



*Hozitze protokoloa*



*Inurritza Biotopo Babestua*

## ESKAITZEN DENA:

Praktikak, gradu amaierako lana eta masterreko proiektua.

## NORI ZUZENDUA:

- **Praktikak:** Biologia eta Natur Zientzien graduko ikasleak. Botanikako oinarrizko jakintzak lagungarriak izango dira.
- **Gradu amaierako proiektua:** Biologia eta Natur Zientzien graduko 4. mailako ikasleak.
- **Masterreko proiektua:** Natur zientzien alorreko masterreko ikasleak.

## IRAUPENA:

- **Gradu amaierako proiektua:** otsailetik irailera.
- **Masterreko proiektua:** otsailetik irailera .
- **Praktikak:** proiektuak irauten duen epearen barruan.

## NON:

- **Laborategiko lana:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landareen Germoplasma Bankuan: Fraisoroko Nekazal Laborategia (Zizurkil) eta Arizmendiko Mintegia (Urnieta).
- **Mendiko lana:** Iñurritza Biotopo Babestua (Zarautz) eta Urola itsasadarra Kontserbazio Bereziko Eremua (Zumaia).